



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2017.02.14an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
MARIA UBARRETXENA CID
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
MIKEL BIAIN BERRAONDO

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
ELGETA
ESKORIATZA
OÑATI

ETORRI GABEAK

IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
SABINO AZCARATE LETURIA
ENEKA ZANKADA REMENTERIA
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2017ko otsailaren 14an, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2017ko urtarrilaren 17an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- Mankomunitatearen lokalak eta instalazioak garbitzeko kontratazio espedientea; eskaintzen sailkapena

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2016ko abenduaren 20an egindako bilkuran, Mankomunitatearen lokalak eta instalazioak garbitzeko kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiria onartu zituen eta esleitze-prozedura irekitzea erabaki zuen.

Horretarako emandako epean eskaintza bakarra aurkeztu da, eta onartu egin da, HEMEN GARBIKETAK, S.L. enpresarena.

Aurkeztutako eskaintzak Baldintza Agirian jasotako baldintza guztiak betetzen dituzenez, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. HEMEN GARBIKETAK, S.L. enpresari hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita laneko arriskuen prebentziorako dokumentazioa, eta 9.500 €ko behin betiko bermea aurkezteko.
2. Kontratu honen esleipena, dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.

3.- HONDAKINEN KUDEAKETA

3.1.- Hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko CESP, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A. enpresarekin sinatutako kontratuaren hamabigarren aldaketa eta kontratuaren egoera

Landerrek, Hondakin Kudeaketa Batzordeko lehendakariak, hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko CESP, COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES, S.A. enpresarekin daukagun kontratuaren problematika eta egoeraren berri eman du.

Esan du ez dagoela adostasunik hondakin bilketa zerbitzuaren ibilbide bakoitza egiteko beharrezko denboraldiari buruz, eta kontratu honen Administrazio-Klausula Berezien Agiriaren 23. klausulak dioena betetzeko, proposatu du zerbitzuaren azken dimentsionamendua ezarriko duen Mankomunitatearekin eta kontratistarekin zerikusirik ez duen hirugarren enpresa ikuskatzailea kontratatzeko espedientea lehenbailehen irekitzea.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

4.1.- Mankomunitateko hainbat udalerrietako argiteri publikoan energia aurrezteko LED luminariak eta ekipoa hornitzeko eta instalatzeko kontratazio espedientea; eskaintzen sailkapena

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2016ko uztailaren 21ean egindako bilkuran, Mankomunitateko hainbat udalerrietako argiteri publikoan energia aurrezteko LED teknologiako argiak eta ekipamenduak hornitzeko eta instalatzeko kontratazio-espedientea, gastua eta Administrazio-Klausula Berezien eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartu zituen eta esleitze prozedura irekitzea erabaki zuen.

Horretarako emandako epean ondorengo proposamenak aurkeztu ziren:

- **1 lotea: Aretxabaletako argiteri publikoa berritzea:**

1	TECUNI, S.A.
2	UTE ONDOAN, S.COOP./INELCO 2001, S.L.
3	ELECTRICIDAD CUADRA, S.L.
4	ELECNOR, S.A.
5	FUSIONA SOLUCIONES ENERGETICAS, S.A.
6	TECNICAS EDIFICATIVAS INNOVADORAS, S.L.
7	UTE SOCIEDAD IBERICA DE CONSTRUCCIONES ELECTRICAS, S.A. (SICE)/LOYOLA NORTE, S.A.
8	COBRA INSTALACIONES Y SERVICIOS, S.A.

- **2 lotea: Arrasateko argiteri publikoa berritzea:**

1	TECUNI, S.A.
2	ELECTRICIDAD PEROSANZ, S.L.
3	UTE ONDOAN, S.COOP./INELCO 2001, S.L.
4	FUSIONA SOLUCIONES ENERGETICAS, S.A.
5	UTE SOCIEDAD IBERICA DE CONSTRUCCIONES ELECTRICAS, S.A. (SICE)/LOYOLA NORTE, S.A.
6	COBRA INSTALACIONES Y SERVICIOS, S.A.

- **3 lotea: Bergarako argiteri publikoa berritzea:**

- 1 ELEKTRA, S.A.
- 2 TECUNI, S.A.
- 3 UTE ONDOAN, S.COOP./INELCO 2001, S.L.
- 4 FUSIONA SOLUCIONES ENERGETICAS, S.A.
- 5 UTE SOCIEDAD IBERICA DE CONSTRUCCIONES ELECTRICAS, S.A. (SICE)/LOYOLA NORTE, S.A.
- 6 COBRA INSTALACIONES Y SERVICIOS, S.A.

- **4 lotea: Eskoriatzako argiteri publikoa berritzea:**

- 1 ELEKTRA, S.A.
- 2 TECUNI, S.A.
- 3 ELECTRICIDAD PEROSANZ, S.L.
- 4 UTE ONDOAN, S.COOP./INELCO 2001, S.L.
- 5 FUSIONA SOLUCIONES ENERGETICAS, S.A.
- 6 UTE SOCIEDAD IBERICA DE CONSTRUCCIONES ELECTRICAS, S.A. (SICE)/LOYOLA NORTE, S.A.
- 7 COBRA INSTALACIONES Y SERVICIOS, S.A.

- **5 lotea: Oñatiko argiteri publikoa berritzea:**

- 1 ELECTRICIDAD CUADRA, S.L.
- 2 FUSIONA SOLUCIONES ENERGETICAS, S.A.
- 3 TECNICAS EDIFICATIVAS INNOVADORAS, S.L.
- 4 LEYCOLAN, S.A.L.

B gutun-azalean jasotako dokumentazioa eta lizitatzailleek emandako argibideak aztertu ondoren, Kontratazio Mahaiak, honako proposamen hauek baztertzea erabaki zuen ondorengo arrazoiengatik:

- **1 lotea: Aretxabaleta**

- UTE ONDOAN, S.COOP./INELCO 2001, S.L.: B gutun-azalean hobekuntzak zehazteagatik.
- ELECNOR, S.A.: B gutun-azalean hobekuntzak zehazteagatik.
- FUSIONA SOLUCIONES ENERGETICAS, S.A.: ziurtagiri faltsua aurkezteagatik.
- TÉCNICAS EDIFICATIVAS INNOVADORAS, S.L.: ENEC ziurtagiria edo baliokidea ez aurkezteagatik, CE markaren adostasun adierazpenerako edukiak ez betetzeagatik, eta erreportajearen aurkeztutako argazkiak ez direlako jardueraren helburu diren eremuetakoak.

- COBRA INSTALACIONES Y SERVICIOS, S.A.: B gutun-azalean hobekuntzak zehazteagatik, eta erreportajearen aurkeztutako argazkiak ez direlako jardueraren helburu diren eremuetakoak.
- **2 lotea: Arrasate**
 - FUSIONA SOLUCIONES ENERGETICAS, S.A.: ziurtagiri faltsua aurkezteagatik.
 - COBRA INSTALACIONES Y SERVICIOS, S.A.: erreportajearen aurkeztutako argazkiak ez direlako jardueraren helburu diren eremuetakoak.
- **3 lotea: Bergara**
 - ELEKTRA, S.A.: B gutun-azalean hobekuntzak zehazteagatik.
 - FUSIONA SOLUCIONES ENERGETICAS, S.A.: ziurtagiri faltsua aurkezteagatik.
 - COBRA INSTALACIONES Y SERVICIOS, S.A.: B gutun-azalean hobekuntzak zehazteagatik, eta erreportajearen aurkeztutako argazkiak ez direlako jardueraren helburu diren eremuetakoak.
- **4 lotea: Eskoriatza**
 - FUSIONA SOLUCIONES ENERGETICAS, S.A.: ziurtagiri faltsua aurkezteagatik.
 - COBRA INSTALACIONES Y SERVICIOS, S.A.: B gutun-azalean hobekuntzak zehazteagatik, eta erreportajearen aurkeztutako argazkiak ez direlako jardueraren helburu diren eremuetakoak.
- **5 lotea: Oñati**
 - FUSIONA SOLUCIONES ENERGETICAS, S.A.: ziurtagiri faltsua aurkezteagatik.
 - TÉCNICAS EDIFICATIVAS INNOVADORAS, S.L.: ENEC ziurtagiria edo baliokidea ez aurkezteagatik, CE markaren adostasun adierazpenerako edukiak ez betetzeagatik, eta hobekuntzak B gutun-azalean zehazteagatik.

B gutun-azaleko dokumentazioa baloratu ondoren, onartutako lizitatuzaileen C gutun-azalak ireki ditu Kontratazio Mahaiak eta, dokumentazioa udal teknikariei helarazi die proposamena eta xehetasun ekonomikoa eta B gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa bat datozela egiaztatzeko.

Ikusirik Eskoriatzako txosten teknikoak diola TECUNI, S.A. enpresak 4. loterako C gutun-azalean aurkeztutako proposamen ekonomikoaren xehetasunean jasotako luminaria (Coreline-Philips) ez dela B gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioan, azterketa luminoteknikoa barne, jasotakoa (Extroled-Gewis), eta honako hauek kontuan izanda:

- Aipatu enpresak aurkeztutako Azterketa Luminoteknikoari emandako puntuazioa indargabetua gelditzen dela eskaintza ekonomikoan jasotako luminaria ez delako aipatu Azterketa egiteko erabili dena.
- Luminaria bat edo bestea erabiltzeak eskaintza ekonomikoa determinatzen duela.
- Lizitzaileak ezin dezakeela luminaria bat edo bestea hornitzeko aukera izan.
- Lizitzaileak bere proposamenaren osotasunean inolako zalantzarik gabe zehaztu behar duela zer eskaintzen duen eta zein prezioetan, eta kasu honetan proposamenean luminaria desberdinak erabiltzerakoan proposamena zuzen baloratzea eragozten duen nahastea eragiten dela.

Kontratazio Mahaiak, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 84. artikulua dioena ikusirik, hau da: *“Proposamen bat ez baletor bat aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin,.....Mahaiak baztertu egingo du, arrazoitutako ebazpen bitartez....”*, TECUNI, S.A. enpresak 4. loterako aurkeztutako proposamena baztertzea proposatzen dio Gobernu Juntari.

Ondoren, lote bakoitzeko eskaintzak segida beherakorrean sailkatu ditu, Administrazio-Klausula Berezien Agirian jasotako irizpideen arabera.

Hau honela izanik, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. TECUNI, S.A. enpresak 4. loterako aurkeztutako proposamena baztertzea, goian jasotako arrazoiak direla eta.
2. Eskaintzen ondorengo sailkapenak onartzea:

Lote 1: Aretxabaleta

	<u>Enpresa lizitzaileak</u>	<u>Balio irizpen baten menpe dauden balorazio irizpideak</u> 30 puntu	<u>Irizpide automatikoak</u> 70 puntu	<u>GUZTIRA</u> 100 puntu
1	TECUNI, S.A.	23	69,84	92,84
2	ELECTRICIDAD CUADRA, S.L.	22	68,00	90,00
3	UTE SOCIEDAD IBERICA DE CONSTRUCCIONES ELECTRICAS, S.A. (SICE)/LOYOLA NORTE, S.A.	18	66,43	84,43

Lote 2: Arrasate

	<u>Enpresa lizitatzailerak</u>	<u>Balio irizpen baten menpe dauden balorazio irizpideak</u> 30 puntu	<u>Irizpide automatikoak</u> 70 puntu	<u>GUZTIRA</u> 100 puntu
1	ELECTRICIDAD PEROSANZ, S.L.	23	69,00 p	92,00
2	TECUNI, S.A.	24	65,01 p	89,01
3	UTE SOCIEDAD IBERICA DE CONSTRUCCIONES ELECTRICAS, S.A. (SICE)/LOYOLA NORTE, S.A.	18	61,91 p	79,91
4	UTE ONDOAN, S.COOP./INELCO 2001, S.L.	11	66,94 p	77,94

Lote 3: Bergara

	<u>Enpresa lizitatzailerak</u>	<u>Balio irizpen baten menpe dauden balorazio irizpideak</u> 30 puntu	<u>Irizpide automatikoak</u> 70 puntu	<u>GUZTIRA</u> 100 puntu
1	TECUNI, S.A.	24	65,06	89,06
2	UTE SOCIEDAD IBERICA DE CONSTRUCCIONES ELECTRICAS, S.A. (SICE)/LOYOLA NORTE, S.A.	22	64,79	86,79
3	UTE ONDOAN, S.COOP./INELCO 2001, S.L.	6	70,00	76,00

Lote 4: Eskoriatza

	<u>Enpresa lizitatzailerak</u>	<u>Balio irizpen baten menpe dauden balorazio irizpideak</u> 30 puntu	<u>Irizpide automatikoak</u> 70 puntu	<u>GUZTIRA</u> 100 puntu
1	ELECTRICIDAD PEROSANZ, S.L.	26	66,84	92,84
2	UTE SOCIEDAD IBERICA DE CONSTRUCCIONES ELECTRICAS, S.A. (SICE)/LOYOLA NORTE, S.A.	15	65,39	80,39
3	UTE ONDOAN, S.COOP./INELCO 2001, S.L.	10	70,00	80,00
4	ELEKTRA, S.A.	10	62,44	72,44

Lote 5: Oñati

	<u>Enpresa lizitatzailerak</u>	<u>Balio irizpen baten menpe dauden balorazio irizpideak</u>	<u>Irizpide automatikoak</u>	<u>GUZTIRA</u>
		30 puntu	70 puntu	100 puntu
1	LEYCOLAN, S.A.L.	28	51,00	79,00
2	ELECTRICIDAD CUADRA, S.L.	26	44,94	70,94

3. Saillkapen hauen arabera, ekonomikoki onuragarrien proposamenak aurkeztu dituzten enpresei hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, A gutun-azaleko agiriak, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela frogatzen duen dokumentazioa, laneko arriskuen prebentziorako dokumentazioa eta behin betiko bermea aurkezteko.
4. Kontratu hauen esleipena dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.

4.2.- Gipuzkoako lehiakortasuna eta lurralde kohesioa sustatzeko programaren 2016ko deialdian onartutako “INBEKO” (Industria Berritzaileen Komunitatea) eta “ANALISI NUMERIKOKO KOMUNITATEA” proiektuak garatzeko lankidetzak hitzarmenak

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2016. urtean “**Gipuzkoako eta Lurralde Kohesioa Sustatzeko Programa**” argitaratu zuen gure gizarte-ereduan protagonismoa erdiratzeko ikasi eta ekiteko prest dauden pertsonengan, ahalegina eta elkartasuna batuz, konfiantzan oinarrituriko harremanek sortutako marko batean. Orokorrean, kidetasuna eta nortasuna eta aldaketarako gogoia biziki antzematen dituen lurralde bat lortzeko asmoz. Testuinguru horretan Debagoieneko Mankomunitateak, eskualdeko eragile ezberdinekin lankidetzan, eskualdeko errealitate sozioekonomikoa eraldatzeko eta eskualdearen eraikuntza sozio-enpresarialerako oinarriak finkatuko lituzkeen ekintza marko orokorra bideratzeko “DEBAGOIENA ERALDATZEN” strategi lerroa abian jarri zuen eta zenbait azpi-proiektu bideratu ditu marko horretan azken urteetan. Aurten ere, Debagoieneko Mankomunitateak, bide bera jarraituz, eskualdeko eragile ezberdinekin elkarlanean eskualdeko eraldaketa sozio-ekonomikoa sustatzeko beste zenbait proiektu garatu nahi ditu, marko honetan kokatzen direlarik hitzarmen hauetan jasotako proiektuak.

Egindako eskaerei erantzunez Foru Aldundiak bi proiektu onartu ditu ondorengo koadroan zehazten direnak.

Proiektu hauek Gipuzkoako Foru Aldunditik diru-laguntza jasoko dute, “Gipuzkoako Lehiakortasuna eta Lurralde Kohesioa Sustatzeko Programaren” 2016. urteko deialdiaren barruan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 10.3 artikulua babesean. Talde moduan garatuko dira proiektu hauek, taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituelarik gauzatze konpromisoak eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko diru laguntzaren zenbatekoak Foru Aldundiak onartu dituelarik, proiektuaren eskaeraren

arabera. Denak onuraduntzat joko dira. Mankomunitatea taldearen ordezkari gisa arituko da, prozesuaren koordinatzaile lanak eginez proiektu guztietan.

PROIEKTUAK	EMANDAKO LAGUNTZA	PARTAIDEAK
Forja Prozesuen Analisi Numerikoko Komunitatea	25.733,00	Lanbide Heziketaren Lagunak (LHL)/ Mankomunitatea
“INBEKO” Debagoieneko Industria Berritzaileen Komunitatea	50.913,00	GARAIA Berrikuntza Gunea/ Mankomunitatea
GUZTIRA	76.646,00	

Orain, proiektu hauek garatzeko proiektu bakoitzean parte hartuko duten erakundeekin lankidetzak hitzarmenak sinatu behar direnez, Garapen Ekonomikorako Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Mankomunitatea koordinatzaile den goiko koadroan zehaztutako proiektu bakoitza garatzeko dagozkion partaideekin dagozkion lankidetzak hitzarmena sinatzea, ondorengo klausulen arabera:

“LEHENA. - Hitzarmen honen xedea da “.....” proiektua garatzea, hitzarmen honi erantsen zaiona.

Aipatu proiektuaren garapenean parte hartzera konprometitzen dira ... aldeek, behar hainbat gaitasun tekniko eta esperientziadun langileak horretan inplikatur.

(...Proiektuaren azalpena)

BIGARRENA. Debagoieneko Mankomunitateak proiektu hau garatzeko Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotako diru-laguntza ordainduko dio taldea osatzen duen onuradun bakoitzari, Foru Aldundiak onartutako banaketaren arabera. Eranskinean jasotzen diren koadroetan azaltzen dira proiektuaren kosteak eta erakunde bakoitzak egotzitako eta justifikatu beharko dituen pertsonalaren dedikazioa zein proiektua garatzeko egingo diren beste gastuak. Era berean, proiektuaren finantzaziorako jasotako diru-laguntza eta proiektuan parte hartzen duten erakundeek ekarpena beste koadro baten jasotzen dira. Foru Aldundiak proiektuaren kitapenean ez balu justifikazioaren bat onartuko eta ondorioz diru-laguntzen murrizketak ezarri gero, aipatutako murrizketa dagozkion erakundeari aplikatuko zaio.

HIRUGARRENA.- Diru laguntza jaso ahal izateko taldeko onuradun bakoitzak bete beharko ditu aipatu deialdian jasotako betebeharrak guztiak.

LAUGARRENA.- Proiektu hau hitzarmen hau sinatzen denean hasi eta 2017ko ekainaren 30ean bukatuko da.

BOSGARRENA.- Hitzarmen hau indargabetzeko arrazoiak izango dira:

- Bi aldeek akordioa berri indargabetu edo ezeztatuko.
- Aldeetako bakoitzak ez betetzea hemen deskribaturiko klausulen edukia.

SEIGARRENA.- *Datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, lankidetzaren esparruan, datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera tratatu beharko dira, eta ezingo dira erabili hitzarmen honetan hitzarturiko xedeaz bestelako helburu baterako.”*

4.3.- PRINCE proiektua garatzeko lankidetzaren hitzarmena; berri ematea

Garapen Ekonomikorako Agentzia Batzordearen ondorengo irizpen txostenaren berri eman da:

“Gipuzkoako Foru Aldundiak "Pertsonekin eta lurraldearekin konpromisoa hartu duten enpresak sustatzeko" programaren diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartu zituen 2016ko abenduan. Horren ondorioz Gipuzkoako garapen agentziek eta Lanbide Heziketako zentroek lurraldeko ehun enpresetan diagnostikoak eta proiektu teknologiko zehatzei buruzko lanak egingo dituzte. Programaren babesean, Debagoiengan lanbide heziketako zentroekin aritzen diren enpresen proiektuak landuko dira. Guztira 10 enpresetan diagnostikoak egitea eta lanak burutzea aurreikusten da.

Deialdiari erantzunez eta Foru Aldundiko aginduak jarraituta, programan parte hartzeko Gipuzkoako garapen agentziek Oarsoaldeko Garapen Agentzia izendatu zuten agentzi guztien ordezkari izateko programarekiko tramitazioak egiteko eta diru-laguntza jaso ahal izateko. Beraz, agentzi horrek jasoko ditu programan parte hartzeagatik Foru Aldundiak emango ditun diru-laguntza guztiak. Ondoren, Oarsoaldeko Garapen Agentziak diru-laguntzak banatuko ditu gainontzeko agentzien artean, beti ere burututako lanen arabera. Horretarako Oarsoaldeko Agentzia eta gainontzeko agentzien artean hitzarmen bat sinatu behar izan da eta horren berri ematen da.

Batzordekideek ontzat ematen dute sinatutako hitzarmena eta Gobernu Juntan horren berri ematea onartzen dute aho batez.”

Gobernu Junta jakinaren gainean gelditu da.

4.4.- LANBIDEkin lankidetzaren orientazio ekintzak kudeatzeko uztailaren 5era arte egun erdiz bi orientatzaile izendatzeko proposamena

Garapen Ekonomikorako Agentzia Batzordearen ondorengo irizpen txostenaren berri eman da:

“Arduradunak gaiari buruzko ondorengo txosten teknikoa banatzen du batzordekideen artean.

“Debagoieneko Mankomunitateak, Lanbideren laguntza jaso ondoren, “Enplegu Zentroa” kudeatzeko 2016ko martxoaren 7an orientatzaile bat izendatu zuen urte baterako (2017ko martxoaren 6a arte). Bestalde 2016ko uztailaren Lanbidek Debagoieneko Mankomunitateak, 2016-17an orientazio ekintzak burutzeko egindako laguntza eskaera ontzat eman zuen 750 orduko orientazio zerbitzuak finantzatzuz 2017ko uztailaren 5a arte, eta zerbitzu hori garatzeko beste orientatzaile bat izendatu zuen.

Hori guztiaren ondorioz orientazio zerbitzuak, Arrasaten, zein eskualdeko beste udalerrietan, ibiltari eran, langabetuei zuzendutako lan orientazio zerbitzuak ematen ari gara Mankomunitatetik. Enplegu Zentroaren zerbitzua martxoaren 7an bukatuko denez, orientatzaileen jardunaldi erdiko izendapenak bertan behera geldituko dira, zerbitzu eskaerak aldiz areagotu diren bitartean.

Agentziako arduradun honen iritzian, egun ematen diren orientazio zerbitzuarekin jarraitzeko beharra dago. Horretarako jardunaldi erdiz uztailaren 5erarte izendatuta dauden orientatzaileen izendapenak osatu beharko lirateke egun osoz zerbitzua eman ahal izateko. Horretarako "Orientazio Ekintzak" programak ematen digun babes juridikoa erabili daiteke. Bestalde, 2017ko aurrekontuetan aurreikusita dagoen partidak izendapen horiek finantzatzeko behar besteko hornidura du.

Aurrekoa kontuan izanik, jardunaldi erdiz izendatuta dauden orientatzaileak Z. G. eta O. G., 2017ko uztailaren 5a arte beste jardunaldi erdiz izendatzea proposatzen dut."

Batzordekideek ontzat ematen dute aipatutako izendapenak egitea eta gaia Gobernu Juntara, onespren proposamenarekin, bideratzeko erabakia hartzen dute."

Gobernu Juntak aho batez onartu du Garapen Agentziako Batzordearen proposamena.

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

16/129.- 16/47 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HIRUROGEITA BAT MILA HIRUREHUN ETA HOGEI EURO ETA HIRUROGEITA HAMABOST ZENTIMO (61.320,75 €).

16/130.- 16/48 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HIRU MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA BAT EURO ETA HIRUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (3.581,76 €).

16/131.- 16/49 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HAMABI MILA LAUREHUN ETA HOGEITA HAMAZORTZI EURO ETA ZENTIMO BAT (12.438,01 €).

16/132.- 16/50 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BOST MILA ETA BERROGEITA HAMALAU EURO ETA HIRUROGEITA HAMAR ZENTIMO (5.054,70 €).

16/133.- 16/51 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMAR MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI EURO ETA LAUROGEITA BAT ZENTIMO (290.749,81 €).

16/134.- 16/52 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira SEIEHUN ETA HIRUROGEITA BAT EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMO (661,47 €).

17/01.- 1.- J. R. A. kontratatzea M. Z. zamaketaria ordezkatzeko urtarrilaren 10etik aurrera gaixotasunagatik. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- G. I. A. kontratatzea I. L. txofer-zamaketaria ordezkatzeko urriaren 10etik aurrera gaixotasunagatik. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

17/02.- 1.- Epeleko zabortegiko isurketa gelaxkaren 2. fasearen zigilatze partziala eta 3. fasearen sorrerarako detailezko proiektua idazteko eta obra zuzendaritza, segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa eta ingurumen aholkularitzarako kontratua HIRIGINTZA, S.A. enpresari esleitzea ondorengo prezioan, gehi BEZ:

- Proiektuaren erredakzioa: 8.250 €.
- Obren zuzendaritza osoa: 9.075 €.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

17/03.- - Z. G. bitarteko funtzionarioaren lanaldi erdiko murrizketa onartzea.

17/04.- Etxean erabilitako olio biltzeko edukiontzia bildu, garbitu eta mantentzeko eta ontziz hornitzeko kontratazio espedientean

1.- Administrazio Klausula Partikularren Agirian ondorengo akatsak zuzentzea, agiri berria onartuz.

- Kontratuaren balioaren zenbatespena: 202.000 €, BEZ kanpo.
- Kontratuaren iraupena: bi urte, urtebetez luzatzeko aukerarekin.

2.- Egintzak proposamenak aurkezteko epea irekitzeko unera eramatea, eta proposamenak aurkezteko 15 eguneko beste epe bat zabaltzea, akatsak zuzentzeko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontaktzen hasita.

3.- Agiri zuzendua eta akatsak zuzentzeko iragarkia legez ezarritako bitartekoetan argitaratzea.

Gobernu Juntako kideen legezko gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin premiazkoztat jo ondoren, gai-zerrendan sartu gabeko ondorengo puntua aztertzeari ekin zaio.

Haizeak igandetik astelehenera edukiontzietan eragindako kalteak direla eta, edukiontzi berrien eskaera

Aurreko igandeko (2017/02/12) haize bortitzak hondakin bilketako edukiontzietan, batez ere Aretxabaletan eta Arrasaten, kalte ugari eragin ditu. Hau dela eta, Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoak txosten bat aurkeztu du esanez kaltetutako edukiontzi hauek berehala eta urgentziaz birjartzea ezinbestekoa dela hondakin bilketa zerbitzua zuzentasunez eta bere osotasunean eskaini ahal izateko. Gainontzean, hondakinak lurrean pilatzeko arriskuaz gain, euria edukiontzi apurtuetan sartu eta kutsaturiko lixibiatuak sortzeko arriskua nabarmena dela, honek hiritarregan sor ditzakeen ondorio kaltegarriekin.

Hau honela izanik, proposatu du, edukiontzi berrien eta edukiontzien beste hainbat zatiren erosketa PLASTIC OMNIUM SISTEMAS URBANOS, S.A. enpresarekin 2016ko abuztuaren 1ean sinatutako kontratuaren markoan egitea, nahiz eta kontratu honen balio estimatua gaintu, oraindik indarrean baitago.

Aipatu txostenean jasotako arrazoiak direla eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- PLASTIC OMNIUM SISTEMAS URBANOS, S.A. enpresari aipatu kontratuaren markoan ondorengo eskaera egitea, horretarako gastua onartuz, guztira 40.000 €, BEZ kanpo:
 - Ontzi arinentzat 3200L-ko 14 edukiontzi.
 - Papera-kartoiarentzat 3200L-ko 13 edukiontzi.
 - Errefusarentzat 2200L-ko 2 edukiontzi.
 - Organikarentzat 2200L-ko edukiontzi bat.
 - Ontzi arinentzat 17 tapa hori.
 - Paper-kartoiarentzat 33 tapa urdin.
 - Errefusarentzat 2 tapa gris.
 - Organikarentzat 7 tapa marroi.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 14:00etan, bukatutzat eman da bilkura.